

Osasungintza publikoa babesteko 3.000 lanpostu eskatzen dituzte

Osakidetza zuzendaritzaren eta sindikatuen arteko gatazka ez dago konponketatik hurbilago iazko udazkenaren hasieran zegoena baino. Hedabideen aurrean elkarri arduragabekeria leporatzen diote batzuek eta besteek; negoziazio mahaian, berriz, hutsaren hurrengo negoziatzen da. Ez dirudi jendartean ia oharkabean igaro den eta gutxieneko zerbitzuei buruzko eztabaida latza piztu duen 48 orduko grebak aldaketa handirik eragingo duenik.

| UNAI BREA |

“MOBILIZAZIO ZIKLO BAT itxiko dugu gaur; Osakidetza eskua dago etorkizunean gehiago egitea edo ez”. Pello Igeregi ELAko kideak joan den apirilaren 24an esandako hitzak dira, Osakidetza ordezkaritza duten sindikatu guztiek deitutako manifestazioa –ez oso jendetsua; 2.000 inguru langile-abiaturik baino minutu batzuk lehenago. Bigarren greba eguna zuten.

Esanguratsua da manifestazioaren buruak eraman zuen pankarta orain dela urtebete inguruko mobi-

lizazioetan erabilitakoaren berdina zela, akaso bera. Orduetik hona egingandako Osakidetza Mahai Sektorialeko bilerek ez dute fruiturik eman, bistan dena. Langileen ordezkariek funtsezko eskari gehienei muzin egin die Osakidetza, eta egingandako eskaintzak onartezintzat jo dituzte sindikatuek. Hala, 48 orduko grebarako deia egin zuten Osakidetza langileei, apirilaren 22ko gaueko 22:00etatik hasita.

Lau egun lehenago, apirilaren 18an, hedabideen aurrean azaldu

ziren Osakidetza zuzendari nagusia, Jon Etxeberria, eta giza baliabideetako zuzendaria, Jose Maria Armentia, greba deialdiaz beren iritzia plazaratzeko asmoz. Sindikatuek hartutako bidea neurrigabekotzat jotzen, eta adierazi zuten Osakidetza lan baldintzak Espainiako Estatu-ko beste osasun zerbitzu batzuetakoak baino hobekiagoak direla.

Sindikatuaren zenbait eskari, aste-ko 35 orduko lanaldia berreskuratzeko esate baterako, une honetan ase ezinak direla esan zuten Etxebe-





UNAI BREA



UNAI BREA



JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS



ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

Lehen greba egunean, langileek kontzentrazioak egin zituzten Gurutzetako (Barakaldo) ospitalean (goiko argazki biak), Gasteizko Santiago ospitalean (behean, ezkerrean), eta Osasun Sailaren Gipuzkoako ordekaritzaren parean; Donostian (behean, eskuman). 300 lagun inguru bildu ziren horietako bakoitzean.

rriak eta Armentiak. Nolanahi, Osakidetza hilabeteotan egindako eskaintza ona dela defendatu zuten, eta kritika egin zieten sindikatuei, aintzat ez hartzeagatik. Izan ere, azpimarratu zuten baldintza okerra-goetan lanean ari diren Espainiako Estatuko autonomia erkidegoetan grebarik ez dela egiten, eta EAEn, aldiz, bai.

Arrazonamendu horren ifrentzua Iñigo Garduño CCOOko kidearen ahotik entzun genuen, apirilaren 24ko manifestazioa amaitutakoan: “Osakidetza eta Darpon [Osasun] sailburuak ez dituzte langileak begirunez tratatzen; argitu dezatela zergatik osasungintzan ez den egin administrazioaren beste arlo batzuetan egin den ahalegina, Madrildik datozen murrizketak saiheste aldera”.

3.000 lanpostu sortzea eskatzen dute sindikatuek

Osakidetza eta sindikatuek negoziatzeko borondaterik eza leporatzen diote elkarri. Bi aldeak ez dira ezertan ere ados jarri gatazka hasi zenetik, baina arrakala handiena, zalantzarik gabe, langileen ordezkari

Azken urteetan Espainiako Gobernuak ezarritako murrizketen ondorioz, langile finkoen lanaldia luzatu eta behin-behinekoen kontratazioak gutxitu egin dira; horrek zerbitzuaren kalitateari eragiten dio, sindikatuek salatzen dutenez

rien eskari nagusiari dagokio: gutxienez 3.000 lanpostuko lan-eskaintza publikoa egin dezan galdegiten diote Osakidetza-ri. Osakidetza erantzun du 1.000 lanpostu inguruko eskaintza egingo duela. Baina horietatik 500 bat baino ez lirateke berriak, LABeko Edurne

Agirrek dioenez, “gainerakak erretiroak ordezkatzeko dira”.

Azken urteetan Espainiako Gobernuak ezarritako murrizketen ondorioz, Osakidetza-ko 26.000 langile finkoen lanaldia handitu egin da; batez beste, urteko 1.592 orduetik 1.614ra. Horrekin batera, behin-behineko langileen kontratazioak –bajan edo oporretan daudenak ordezkatzeko, sasoi jakinetan

Zenbat irauten dute itxarote-zerrendek benetan?

IAZKO URRIAREN 5EAN argitaratu genuen *Gatazkarako sendabiderik ez oraingo* erreportajea, iragarri genuen murrizketen ondorioak nabaritu egingo zirela hainbat arlotan. Besteak beste, espezialitate batzuetako itxarote-zerrendetan. Osakidetza zuzendaritzak adierazi du itxaronaldiak ez direla oso luzeak suertatzen ari, baina datuekin tranpa egiten ari dela salatzen dute sindikatuek.

“Gaixoa lehen arretako sendagi-learengana joaten den eguna hartu beharko litzateke itxaronaldiaren hasieratzat”, dio LABeko Edurne

Agirrek, “baina ez da hala egiten”. Lehen arretako zentroan ordua eskatu behar da espezialistarengana joateko, baina maiz, hitzordua ez da berehala lortzen. “Traumatologiaren kasua bereziki lazgarria da; lauzpabost hilabete igaro daitezke medikura lehen aldiz zoazenetik espezialistarengana ordua ematen dizuten arte”. Agirrek dio Osakidetza dei hori egiten duen egunean hasten dela itxaronaldia neurtzen, eta beraz, datuak desitxuratzen dituela, zerbitzuaren kalitatea benetan dena baino hobea dela esan ahal izateko.

zerbitzua indartzeko... – gutxitu egin dira. Lehen bederzti hilekoak ziren lanaldiak orain ozta-ozta iristen dira hilabete bat edo bira, Edurne Agirreren hitzetan.

Sindikatuaren kalkuluen arabera, era horretan galdu den lanpostu kopurua 3.000 ingurukoa da. Iazko irailean Deloitte enpresak Osakidetza egindako auditoriaren emaitzak bat egin zuen kalkulu horrekin: 2012 eta 2013 bitartean 1.500 lanpostu galdu zirela ondorioztatu zuten. Galera horrek, eta langile finkoen lanaldia luzatzeak, Osakidetza eskaintzen duen zerbitzuaren kalitatea gutxitzen duela diote sindikatuek.

“Lan ordu kopurua handitzeak 3.000 lanpostu suntsitu ditu, itzul diezagutela lehengo lanaldia”, aldarrikatu zuen Edurne Agirrek apirilaren 24ko manifestazioaren amaierako ekitaldian. Osakidetza, esan dugu dagoeneko, ezinezkotzat jo du eskari hori betetzea gaur-gaurkoz. Langileek ulerberagoak izan beharko luketela dio zuzendaritzak; funtzio publiko osoaren egoera zein den kontuan har dezatela, eta ez daitezela izan hain berekoiak. “Gure eskakizunak oinarri-oinarritzkoak dira”, Agirrek emandako erantzuna.

Eskakizun horietako bat bajagatiko ordezkapenei dagokie. Gaur egun, Osakidetza behargin batek

baja hartzen duenean, zazpigarren egunera arte ez da harentzako ordezkorik kontratatzen. Ordezkapena lehen egunetik egin dadin nahi dute sindikatuek; zuzendaritzak laugarren egunetik aurrerakoa eskaini die. Gai horretan ere, gainerakoetan bezala, ez da akordiorik aurreikusuten epe laburrean.

Oso baldintza zailetan egindako greba

Zaila da 48 orduko grebak izandako inpaktua baloratzea, baina esan daiteke jendartea, oro har, ez dela biziki ohartu. Osakidetza zuzendaritzak emandako datuen arabera, langileen %9,4k egin du bat sindikatuaren deialdiarekin; Bizkaian %11,8k, Gipuzkoan %7,6k eta Araban %6. Iturri beretik jakin genuenez, sendagileen %4,7k, erizainen %10,1ek eta gainerako langileen %13,2k egin zuten greba.

Parte-hartze kopuru baxua bere posizioaren aldeko argudio modura

Ezarrirako gutxieneko zerbitzuekin Osakidetza nahi bazuen herritarrok grebaz ez ohartzea, helburua bete duela esan beharko da

35 orduko lanaldira itzultzea galdegiten dute sindikatuek; Osakidetza dio gaur egun ezinezkoa dela eskari hori asetzea

aurkeztu du Osakidetza; sindikatuaren arduragabekeria nabarmendu nahi izan dute gaiari buruz egindako agerraldietan. Sindikatuek, berriz, grebari boikota egitea aurpegiratu diote zuzendaritzari, eta onartezintzat jo dituzte inposatutako gutxieneko zerbitzuak. Baldintza horietan taxuzko baloraziorik egin ezin zitekeelakoan, uko egin zioten parte-hartze datuak emateari, eta besterik gabe lortutako emaitzengatik poza agertu zuten.

48 orduko lanuzteak iraun bitartean, greba eskubideari jarritako trabak salatzeari eskaini zizkieten indarrak sindikatuek, mobilizatze-ko arrazoiak haizatzeari adina. Adibide modura, esan zuten grebako lehen egunean larrialdietako langile guztiak behartu zituztela lan egitera, asteburuetan batzuek jaia izaten duten arren. Era berean, salatu egin zuten gaueko txandan ospitaleetako erizainen %100 lan egitera behartua izan zela, eta goizekoan 100 erizainetik zortziri baino ez diotela baimena eman greba egiteko.

Galdakao eta Basurtuko erietxetan, Bizkaian, sindikatu etako ordezkariak Lan Ikuskaritzari deitu zioten, zentro horietako zuzendaritzak greba egitea eragozten ari zirela salatzeko. Eta bi egun horietan premia larriko ebakuntza kopurua inoiz baino handiagoa izatea “kasualitate handia” izan zela adierazi zuen, ironiaz, CCOOko Iñigo Garduñok.

Osakidetza nahi bazuen herritarrok grebaz ez ohartzea, helburua bete duela esan beharko da. Haatik, askoz zailagoa izango du EAEko osasungintza publikoaren arazoak konpontzea. Itxura osoz, aurrekoa bezain gatazkatsua izango baita joan den ostiraleko manifestazioa amaitzeaz batera hasitako ziklo berria. ■